

## 4. IRABAZI - ITURRIAK

Irabazi iturriei buruz hitz egiterakoan, esan beharra dago gure produktuak prezio finko bat izango duela, hau da, ez dela aldatuko. Izandako gastuak kontuan hartuta, hots, karrtua egiteko ordaindu behar izan dugu, hortik abiatuz gure produktuaren hasierako prezioa jarriko diogu. Prezio hori finkoa izango da, baina denbora aurrera joan ahala, gure produktua izandako arrakasta kontuan harturik, baliteke prezioa igotzea edota jaistea, noski.

Gure bezeroei ordaintzeko bi aukera emango dizkiegu; alde batetik ordainketa bakarra, hots, diru guztia aldi batean ordaintzea eta beste alde batetik ordainketa errepikaria, bertan, diru kantitate bat ordaintzen da epeka, beti ere bezeroei erraztasunak emateko helburuarekin. Irabazi horiek aktiboen salmetaren bidez eta renting-aren bidez lortuko ditugu.

